

Manifestazioa Bilbon: Pablo Hasel askatu

BILBO ANTIFAXISTA :: 21/02/2021

Pablo Hasel-en ahotsa heltzen zaigu garrasi betean, barroteetati ihesi estatu Espainiarrean demoiraziarri ez dela gogora araziz.

[twitter:twitturl:https://twitter.com/LaHaineInfo/status/1363528729033646091]

Pablo Hasel-en ahotsa heltzen zaigu garrasi betean, barroteetatik ihesi estatu Espainiarrean demokraziarik ez dela gogora araziz. Demokrazian adierazpen askatasuna ez da jazarria eztaespexeratua izaten, estatu Espainiarrean, aitzitik, bai; eta horren adierazle Pablo Hasel-en espexeratzea. Sokak baina mutur luzea du eta memoriari astindua ematean segituan datozkigu gogora Egin egunkaria zein irrata, Euskaldunon Egunkaria, Negu Gorriak musika taldea (tortutaren aurkako nazioarteko egunean zendutako Rodriguez Galindo hiltzaileeta torturatzailea medio) eta abar luze bat.

Mehatxua beti dago presente estatu Espainiarrean, eta mehatxuaren bidea kamuts agertzen bazaie legedeia bihurritu egiten dute idatzitako oro ezezagun bilakatu arte. Inork pentsa lezake afera dela errege emerituaren izen ona zikintzea ez dela adierazpen askatasuna baina huts larria egiten arituko ginateke. Errege emerituaz aritzea estatu Espainiarraren bilakaera historikoa gogora ekartzea baita, eta denon buru begietara datoz Franco eta Juan Carlos I; azken honek mugimenduaren printzipioak bete eta betearaziko zituela zin eginaz.

¡Todo atado y bien atado! Eso y no otra cosa es lo que representa Juan Carlos I. La continuación y perpetuación en el poder del estado de aquellos que llevaron a cabo el golpe fascista del 36. Hablamos de uno de los actores imprescindibles de la farsa de la transición, que sólo sirvió para perpetuar el carácter fascista del Estado Español y, él mejor que nadie, encarna esa bufa que en sus letras mordaces denuncia y desenmascara Pablo Hasel.

Pablo Hasel abeslari komunista dugu, konpromezu politkoz blaituriko abestietan marxismo-leninismoaren irakaspenak ekartzen dizkigu. Antifaxismoa, klase borroka, preso politiko antifaxistentzako amnista osoa, Estatu Espainiarrak zapaltzen dituen nazioentzako autodeterminazio eskubidea, nazioartekotasuna....bezalako gaiak gure belarrietara ekarriz eta horregaitik ixil arazi nahi dute espexkeko pareta itogarrietan.

Estatu Espainiarra estatu faxista izanik antifaxismoa jazartua, kolpatua, espexeratua eta ixil arazia izatera kondenatu nahi dute; faxismoa delako lege eta fede!!!

Encarcelando a Pablo Hasel nos encarcelan a todxs. El estado fascista español nos quiere enmudecidxs, cabizbajxs y si alguien osa levantar la cabeza nos vienen con todo. Temerosxs de fiscales y jueces fascistas, amordazadxs por leyes mordaza, atemorizadxs por Ertzainas, Mossos, policías y guardia civiles fascistas y humilladxs por la clase política fascista. Si todo este aparato fascista de terror no resulta suficiente, si los incontrolados no consiguen generar el miedo suficiente como para paralizarnos, resuenan ecos de los altos mandos del ejército recordándonos a todos que nos quieren mandar a la cuneta o al paredón. Tanta amenaza nos insufla ardor, nos fortalece y como diría Miguel Hernández, poeta antifascista

y marxista-leninista al igual que Pablo Hasel, como vientos del pueblo sonreiremos a las balas.

Ez daude bakarrik ordea, liluraren eta losintxaren bidetik gure posizio politiko ideologikoak higatzea beste asmorik ez duten laguntzaile sorta ederra dute sasi kazetari eta politikari profesionalen artean. Orain ere ikusi ditzakegu demokraziaz, adierazpen askatasunaren beharraz edo-eta faxismoaren aurrean murru sendoa eraikitzearen ezinbestekotasunaz kalaka bizian gu erakartzeko asmoz. Politikari profesionalen kezkak bailiran bezala. Jakin badakigu borroka dela bide bakarra baina kapitalismoak otzan nahi gaitu eta horretarako antifaxismoaz edo langile klasearen kezkaz hitz egitera datozkigu sozialdemokratak, oportunistak eta erreformista likidatzaile guztiak; gure indarrak eta freskura parlamentarismoaren bide antzura bideatu nahi dituzte, liluraz itsu utziko gaituzten besaulki erosoak onar ditzagun.

Kaleetan, barrikadetan, manifestaldietan, antolaketa politikoaren antolaketan aurkitu gaituzte; lorpen oro borrokanren bidetik etorri baita eta ez bozka paperen bidez.

Estatu faxistak ezin du bizirik iraun antifaxismoa liluraz sorgindu nahi duten sozialdemokrazia eta oportunista likidatzaile horien lan zikinik gabe eta une oro gogora arazi behar diegu gure barrikadan ez dagoela haientzako lekurik. Beraz, argi dugu egun hauetan elkartasuna eta antifaxismoa ahoan bilorik gabe darabilten erreformista eta oportunista likidatzaileekin ez dugula ezer partekatzen, denbora gutxi behar izan dute antifaxismoa eta elkartasuna kriminalizatzeko poliziaren oldarrari erantzunez autodefentsaren bidea jorratu dutelako. Non dago atxilo, jipoitu eta begia galdu duetenganako kezka? Ahanzturan!

Guri bost sozialdemokrata, erreformista eta oportunista likidatzaileak: Podemos/Ahal dugu edo Sortu/EH Bildu izena duten, aspaldi ikasi baikenuen ibiltzen otsoaren eskutik heldu gabe.

Pablo Hasel espetxeratzearekin denok espetxeratu gaituzte, bere aurkako jazarpena gure aurkakoa ere badelako. Bertolt Brecht-en olerkian adierazi bezala ezin ez axolarena egin, ezin beste alde batera begira jarri gure atea noiz eraitsiko itxaroten. Haserrea eta egonezina beharrezkoak badira ere ez dira aski, borrokarako garaiak dira, kalera atera eta antolatzeke uneak; atzo gaur baina hobe. Klasekoa eta borrokalarian den batasun antifaxista gorpuztea ezinbesteko premia bilakatu zaigu estatu Espainiar faxistaren oldarraldiari irmoki erantzuteke; egun, operazio likidatzaileari aurre eginez espetxean ditugun preso politiko antifaxistentzako sustengua eta amnistia osoaren aldarria egikaritzeko; estaturik gabeko nazio zapalduak autodeterminazio eskubidearen gauzatzea erdiesteko; finean kapitalismoa eta faxismoa suntitzeko eta zapaltzailerik zein zapalduerik gabeko gizateria eraikitzeke!

<https://eh.lahaine.org/manifestazioa-bilbon-pablo-hasel-askatu>